

Gobernuak eta gerrila indartsuenak suetena akordatu dute Somalian

Gerra zibilaren oinarrian borroka tribalak daude, ez ideologikoak

Somaliako gobernuak suetena akordatu du azken asteetan, Muqdisho hiriburua konkistatzeko gertu egon den gerrila talde nagusiarekin, Somaliako irratia ofizial baten arabera. Oraingoan, iturri independentienteek edo Somalian borrokan diren gerrila talde desberdinek ez dute egiaztatu edo gezurtatu albistea.

LUIS FERNANDEZ / DONOSTIA


Somaliako irratia aipatuz, BBCK zabaldu duenez, sueten akordioa Mohamed Siad Barre lehendakari somaliarrak berak negoziatu du gerrilarekin, hain zuzen Somaliako Kongresu Batua (SKB), borrokan dauden talde armatuetariko indartsuenarekin.

Errebolteriek abenduan hasi zuten Muqdisho hiriburuan kontrako eraso gogorra, baina gerra lehenago hasia zen. Gerrila talde bat hasi zen borrokan 1988an, baina SBKren ofentsiba 89ko uztailan izan zen. Hil honen hasieran, Siad Barre lehendakaria edozein momentutan eror zitekeela zirudien, baina hiriburuko parte garrantzitsu batzuk kontrolpean mantentzea lortu du Armada ofizialak. Mohamed Siad Barre 1969tik da lehendakaria, eta bere agintea, teoriarik, marxista izan zen 1978ra arte, ordudunik Mendebaldezalea.

HIRU KLAN ELKARTUTA Borroka ideologikoa baino, tribala da Somaliako gerrakoa. Etnikoki, herrialde homogeneoa dela dirudi, % 98,8 somaliarrak dira, somaliera mintzatzen dute eta musulmanak dira. Baina, klan edo tri-



Hawiye klaneko gerrilariak borrokan. Siad Barre lehendakaria Marehan klanekoa da.



buetan daude banatuta somaliarrak, eta oraingo gerran hiru dira borrokan inplikaturiko klanak: Isaq klana iparraldean, Hawiye-tarrak hiriburuan inguruan eta Ogadeni hegoaldean. Alde honetatik, borroka badu antzarik Liberiako gerra zibilarekin.

Siad Barrearen klanak Marehan delakoa da, eta administrazio eta botere guztia berretararen eskuan utzi du azken 20 urteetan. Horri erantzuteko protestak iparraldean hasi ziren. Isaq klana armatan altxatu zen 1988ko maiatzean eta Armadaren errepresioan 50.000 lagun hil zituzten.

Hala ere, Isaq gerrilek (bi daude) iparraldearen kontrola irabazi zuten pixkanaka, eta aldi berean, Ogadeni-tarrek hegoaldekoa. Hawiye klana borrokan hasitako azkena da, 89ko uztailan tribuko 450 lagun manifestaldi batean hil eta gero.

Hiru tribu, lau gerrila

■ **Somaliako Kongresu Batua (SKB).** Lehendakariarekin suetena sinatu duen taldea. Honen partaideak Hawiye klaneak dira, eta Somalia erdialdean dute indarra, Muqdisho hiriburuan eta inguruetan bereziki. Borroketan bigarren mailan zegoen, Mohamed Faran Hassan generalak bere gidaritza hartu zuen arte. Militar hau, gaitzizenez Aydid ('Ospetsua') Siad Barre lehendakariaren kolaboratzaile ohia da, eta gartzelan egona da. Aydidekin, SKB da orain nagusi gerran.

■ **Mugimendu Nazional Somaliarra (MNS).** 1982an sortu zuen Isaq klaneko intelektual talde batek. Beren aurkariek diotenez, Somaliako iparralderako independentzia nahi dute, baina hori ez dela beren helburua ziurtatzen dute. Bere liderra Abdulrahman Ahmed Ali da, gaitzizenez Tur ('Korkobaduna'). Aurreko lider historikoa Mohamed Silanyo zen.

■ **Mugimendu Patriotiko Somaliarra (MPS).** Hegoaldean eragin handia dauka Ogadeni klanaren gerrila honek. Omar Jess koronelak gidatzen du eta nahiz eta oso indartsua ez izan, kolpe gogor eta zehatzak eman izan ditu.

■ **Somaliako Fronte Batua (SFB).** Talde hau ere Isaq klanekek osatzen dute. Lehen MNS taldearekin aliatua zegoen. SFB delako hau kenduta, beste hiru gerrila taldeek koordinakunde bat sortu dute elkarrekin, eta ekintza armatu koordinatuak egiten dituzte, Aydid generalaren agintepean.

Lituanian prentsa askatasuna murriztu nahi dute sovietarrek EEBBen ustez

XABIER ZABALTA / DONOSTIA

Lituanian prentsa askatasuna murrizteko asmoa izan lezake Soviet Batasunak, EEBBetako Estatu Departamenduaren arabera. Erabaki hau hartuko balitz, «norabide okerrean emandako urratsa» izanen litzateke, Margaret Tutwiler aipatu departamenduaren bozeramaleak atzo adierazi zuenez.

Lituanian nazionalisten aurkako bortizkeria bertan behera uztea eskatu zion atzo, Aleksandr Bessmertnikh Soviet Batasuneko kanpo arazoetarako ministro berriari, James Baker bere homologoa estatubatuarra. Estatu Batuen arabera, Bush-en eta Gorbaxov-en artean otsailaren 11tik 13ra egiteko den gailurra arriskuan jarri du Estoniako, Letoniako

eta Lituaniako mugimendu independentisten errepresioak.

Bestalde, Lituaniari buruz hitzik ez du egin Nazio Batuen Erakundearen Idazkaritza Nagusiak. François Giuliani NBEaren bozeramaleak azaldu zuenez, erakunde honek ezin dezake aztertu, kide diren estatuetako barne egoerarik. Lituaniara nazioarteko batzordea igorrez eskatu zuen herenegun Vilniuseko Parlamentuak hilaren 13an bertako telebistaren egoitzan soviatar militarrek egin sarraskia dela eta. 13 lituanian hil ziren ekintza horretan.

Giulianik esan zuenaren arabera, NBEren Segurtasun Kontseiluak edo Asambladaren baimena duenean soilik, ihardun dezake Javier Perez de Cuellar NBEko idazkari nagusiak estatuen barneko arazoetan.



Miloi erdi lagun bildu ziren Lituaniar 13ko hildakoen hiletetan.

REUTER

LABURREAN

EEBBk El Salvador militarki laguntzen jarraituko dute

Estatu Batuek El Salvadorri laguntza militarra eskaintzen jarraituko dute, eta bi hilabete barru berrogeitabi milioi dolar luzatuko dizkio. EEBBk laurogeitabost milioi dolarreko laguntza luzatzen dio urtero El Salvadorri, baina kopuru horren erdia geldieraztea erabaki zuen Senatuak 1990eko azken aldean. 1989ko azaroan izandako sei jesuita eta bi emakumeren hilketari argitu arte.

Tebbit kontserbatzaile britainiarrak politika utzi du

Norman Tebbit Erresuma Batuko Alderdi Kontserbatzaileko kideak politika utzi egin du legealdia amaitu aurretik. Tebbit kontserbatzaileen artean joera eskuindarren burua zen, alderdiko lehendakari izana, eta joera nazionalistaren aldeko eta europar zalearen aurkako ordezkari nagusia. Alderdi Kontserbatzailea 1984ean Brighton-eko balnearioan bilduta zegoelarik, IRAk burututako atentatuan larri zauritu zuten, baina hiru urte gero tinko jarraitu zuen lanean Thatcherren aldamenean.

LABORISTAK eta kontserbatzaileak parekatuta inkesten arabera

Erresuma Batuko Alderdi Laboristak botu asmoak zuzperatu egin ditu The Guardian egunkariak eginiko inkesten arabera, eta gobernuan dagoen Alderdi Kontserbatzailearekin parekatuta legoke gaur egun. Inkestak ageri duenez, britainiarren %43 laboristen alde dago eta beste hainbeste kontserbatzaileen alde. Demokrata Liberalen Alderdi Zentristaren aldekoak %10 dira, eta %2 bakarrik dago Alderdi Berdeari bozkatzeko prest.

FILIPINETAKO kolpista ihesia atxilotu egin dute

Billy Bibit, 1990eko apirilaren gartzelatik ihes egin zuen koronel kolpista Manilan atxilotu zuten atzo Filipinetako Segurtasun Indarrek. Corazon Aquino lehendakaria boteretik botatzeko 1989ko abenduan izandako estatu kolpean parte hartzeagatik atxilotu zuten Bibit koronela. Bibit Ejerzitoko Mugimendu Erreformistako erakunde klandestino burua omen da.